Letourneurrek oso tipologia neoklasiko zehatza landu zuen eta bide osoan aldaketarik gabe errepikatzen da. Beraz, oinarrizko hiru eredu diseinatu zituen, herrien kategoriaren arabera. Donostiakoa eta Irungoa lehen mailakoak ziren, Tolosa eta Zumarragakoa bigarrenkoak eta gainerakoak hirugarrenkoak. Azken maila honetakoak dira Andoain eta Hernaniko geltokiak, Letourneurrek diseinatu zituenen artean osorik iraun duten bakarrak, nahiz eta hauek barnealdeak nabarmen aldatuak eduki.

Donostiako geltokiak Letourneuren jatorrizko estiloari eutsi dio, hein handi batean, nahiz eta G. Biarezren proiektuaren arabera, nabarmen handitu zuten 1880an, Eiffelen tallerretan eginiko bi pabiloi eta markesina bat erantsita. Irungoa aldiz, bota egin zuten eta G. Biarezek berak diseinatutako txapitula zoragarriko eraikuntza batek ordezkatu zuen. Markesina ederra zuen Irungo geltoki berria 1936an sute tamalgarri batean kiskali zen, eta gaur egun toki berean eraikitako diseinu lauko eraikuntza hits eta funtzional bat dugu haren ordezeko.

Trafikoa handitzearekin batera geltoki eta geraleku berriak sortu ziren. Lehenengoek jarraitutako erreduez trenbide estuak aztertzerakoan azalduko dugu. Xumeak ziren, berriz, geralekuak, fabrika-obrazko egitura eta zurezko habez egindako teilatuak zituztenak.

Pasaiaiko hirugarren mailako geltokia eta Tolosako bigarren mailakoa desagertu egin ziren 50eko hamarkadan, eta haien ordezkari adreilu erregogorreko eraikuntza izugarri

Los años cincuenta traen consigo el derribo de dos hermosas estaciones, la de Pasaia, de tercera clase y la de Tolosa, de segunda, que fueron sustituidos por horrendos edificios de ladrillo refractario, distribución poco funcional y desafortunada estética.

Por suerte no se realizaron más edificios de este tipo, sino que se optó por el estilo regionalista, primero en Zumarraga y más tarde en Beasain, Ordizia y Rentería.

Otros edificios interesantes del Norte son las subestaciones eléctricas ubicadas en Gaintxurizketa y Otzaurte, siendo unifamiliares las restantes.

## DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN: LA ESTACIÓN DEL NORTE

Para la construcción de la estación del Norte en la recientemente nombrada capital de Gipuzkoa, la Compañía ferroviaria decidió la construcción de una estación de primera clase, similar a las que se levantarían en Vitoria-Gasteiz y Burgos, ya que todas se basaban en los proyectos del ingeniero jefe de la sección Torquemada-Irun, Sr. Letourneur.

El primitivo edificio se componía de un pabellón central de dos plantas y alas laterales de un sólo piso. El vestíbulo, que se encuentra en el pabellón central tenía a ambos lados los despachos de billetes, del jefe de estación, telegrafista y la escalera que da acceso al piso superior que como era habitual estaba destinado a vivienda del jefe de estación. El cuerpo lateral derecho se destinaba para las salas de espera de primera segunda y tercera clase, mientras que el ala izquierda se destinaba a sala de equipajes y mensajerías. También se situaban en esta ala la salida de viajeros y la fonda.

Exteriormente el edificio se caracteriza por su sobriedad y sencillez, siendo su mejor cualidad estética la armonía y regularidad de las proporciones. Así los huecos se encuentran seriados guardando la misma distancia. Sólo el pabellón central sobresale levemente de la alineación general de la fachada, empleándose la silliería en sus esquinas.

Esta simplicidad constructiva posibilitaba la ampliación del edificio con facilidad, como así sucedió en 1881. En efecto, tras la inauguración del ferrocarril en 1864 la aristocracia madrileña pudo trasladarse con facilidad a Donostia, para tomar los baños, siguiendo el ejemplo de la familia real. Así, la Compañía del Norte consideró insuficiente la estación existente y decidió ampliarla y dignificarla. El proyecto fue encargado al ingeniero francés a A. Biarez que propuso la reforma del edificio con la ampliación de los cuerpos laterales en 3,50 m., la construcción de dos nuevos pabellones extremos y la creación de un dintel corrido a lo largo de la fachada que modifica su aspecto exterior al ocultar a la vista el tejado. Pero la intervención que realmente caracteriza a esta reforma fue la construcción de la marquesina metálica que cubre las vías principales, marquesina que de original y simple diseño, construyó el prestigioso ingeniero francés Gustav Eiffel.

Asimismo, para mejorar los servicios de la estación se decidió la construcción de un pequeño hotel, cuya arquitectura es de inspiración netamente ferroviaria.

itsusi batzuk eraiki zituzten. Funtzio eskaseko banaketa eta zorigaitzeko estetika zuten. Zorionean ez zen egin gisa horretako beste eraikuntza berririk!

Estilo erregionalista bati eman zitzaion bide, Zumarragan lehenik eta Beasainen, Ordizian eta Errenterian ondoren.

Norteko geltokietan beste eraikuntza interesgarri batzuk Gaintxurizketa eta Otzaurten aurki ditzakegun azpiestazio elektriko txikiak dira. Gainerakoak bizitza bakarrekoak dira.

## DONOSTIA: NORTEKO GELTOKIA

Garai hartan izendatu berria zen Gipuzkoako hiriburuan Norteko geltokia eraikitzerakoan, Trenbide Konpainiak lehen mailako geltokia egitea erabaki zuen; hots, Gasteizen eta Burgosen eraikiko zirenen antzekoa, geltoki guztiak baitziren Torquemada eta Irun arteko zatiaren ingeniarien burua zen M. Letourneuren proiektuetan oinarrituak.

Jatorrizko eraikuntzak bi solairuko pabilioia zuen erdian eta solairu bakarreko hegala bi alboetan. Pabilioi zentrallean zegoen atondoak bazituen txartel-saltokiak, geltokiko buruaren eta telegrafistaren gelak eta, ohikoa zen moduan, geltokiko buruari zegokion goiko etxebizitzako eskailerak, bi aldeetan. Eskuinaldean zeuden lehen, bigarren eta hirugarren mailako egongelek; ezkerrekoan, berriz, ekipaje-gela eta merkantziatarako aretoa. Ezkerreko alde horretan bertan zeuden bidaiarien irteera eta ostatua.

Kanpoko aldetik, eraikuntza honen ezaugarriak soiltasuna eta xumetasuna dira, eta bere berezitasun estetikorik onena, aldiz, harmonia eta proportzioen erregulartasuna. Hala, baoak distantzia bereko sailetan banaturik daude. Fatxadaren lerrokatze orokorretik apur bat irteten da erdiko pabilioia, harlanduzko ertzak dituen.

Eraikuntzako soiltasun horrek geltokia zabaldu eta handitzeko bide ematen zuen, eta halaxe gertatu zen 1881ean. Izan ere, 1864ean trenbidea inauguratu zenetik aurrera, Madrigo aristokrazia erraz etor zitekeen Donostiara bainuak hartzera, Erregearen familiaren ereduari jarraituz. Hala, Norteko Konpainiak orduko geltokia eskasa zela iritzi zion eta zabaltzea eta duinago egitea erabaki zuen. Proiektu hau A. Biarez frantses ingeniariari agindu zitzaion, eta haren proposamena izan zen eraikinaren alboetako gorputzak 3,50 m luzatzea, ertzetan bi pabiloi berri altxatzea eta, fatxadaren luzeran aldenik alde hedatzen zen ateburu bat eraikitzea; hau da, teilatua begi bistatik ezkutatzeko kanpoko itxura aldatzen zuena. Baina, berrikuntza honen ezaugarri bereizgarriena Gustav Eiffel frantses ingeniari ospetsuak diseinu erraz bezain soilez trenbide nagusiak estaltzeko eraiki zuen metalezko markesina izan zen.

Horrez gain, geltokiko zerbitzuak hobetzeko, trenbide-giroko arkitekturan inspiraturiko hotel txiki bat eraikitzea erabaki zen.

Con la inauguración en 1905 del puente de María Cristina el ayuntamiento instaló una nueva pasarela metálica sobre la estación a fin de enlazar con la plaza de toros de Atotxa por lo que se decidió realizar el elegante portal de acceso que rematado con un hermoso reloj, permitía la unión del edificio de la estación con el nuevo pabellón ferroviario construido a su derecha.

Pese a las reformas que ha sufrido, la estación de Donostia es la única de las de primera clase construidas por Letourneur para la línea Madrid-Irun que aún permanece en pie. El plan de modernización de estaciones que actualmente lleva a cabo Renfe hará que la ya centenaria estación del Norte recobre su pasado esplendor con nuevos servicios y mayor confort entre los viejos muros levantados en 1864.

## LAS ESTACIONES DE LA LLANADA

Al contrario que en el tramo guipuzcoano del ferrocarril del Norte, en el trayecto alavés no se conserva ninguna de las primitivas estaciones con que Letourneur dotó a la línea.

### La estación de Vitoria-Gasteiz

Con el desarrollo urbanístico que sufrió Vitoria-Gasteiz a comienzos de siglo, su vieja estación correspondiente a las de primera clase de la Compañía, por tanto similar a la estación de Donostia antes de que fuera reformada por Biarez en 1881, resultaba insuficiente. Ante las innumerables presiones realizadas por el Ayuntamiento y la Cámara de Comercio, la Compañía del Norte decidió la construcción de un nuevo edificio de estilo neoregionalista de carácter renacentista, cuyas obras se iniciaron en 1928, aunque su inauguración se demoró hasta 1932, debido a la dificultad que conllevaba sustituir un edificio, que entre tanto debía de continuar prestando servicio, ya que no se modificó el emplazamiento.

### Otras estaciones

Por lo que respecta a las restantes estaciones de la línea, Manzanos, La Puebla de Arganzón, Nanclares, Alegría de Alaba, Agurain-Salvatierra y Araia fueron dotadas por Letourneur de edificios de 3° clase, muy similares a los aún existentes de Andoain y Rentería. Como consecuencia del deteriorado estado que ofrecían, a comienzos de los años setenta se inició la sustitución de los mismos con modernos y funcionales edificios. La sustitución incluía el establecimiento de nuevos enclavamientos en las estaciones. Pese a tratarse de un pequeño apeadero hay que destacar el pintoresco apeadero de Estibalitz, construido en los años cuarenta. En su fachada figura realizada en azulejos una representación de la advocación mariana de Estibalitz.

1905ean, Maria Kristina zubia irekitzearekin batera, udalaxeak Atotxako zezen plazari lotzen zitzaion metalezko pasabide bat eraiki zuen, horregatik sarrerako atari dotorea, erloju eder batez horniturikoa, egitea erabaki zen, geltokiaren eskuinaldean eraikitako tren-pabilioi berria aurreko eraikuntzarekin elkartzea ahalbidetzen zuena.

Berrikuntzak izan dituen arren, Donostiako geltokia da zutik dirauen lehen mailako geltoki bakarra, Letourneurrek Madril eta Irun arteko ibilbidean eraikitakoen artean. Gaur egun Renfe aurrera daraman geltokien berrikuntza-planaren arabera, ehun urte dituen Norteko geltokiak iraganeko handitasun hura berreskuratu ahal izango du, 1864ean eraikitako horma zaharren artean zerbitzu berriak eta erosotasun handiagoa eskaintzeko.

## LAUTADAKO GELTOKIAK

Norteko trenbidearen Arabako ibilbidean ez da gelditzen hasierako geltokirik, Gipuzkoako ibilbidean ez bezala, Letourneurrek trenbidean zehar eraiki zituen haietatik.

### Gasteizko geltokia

Mende hasieran Gasteizek hirigintzan ezagutu zuen garapena zela eta, Konpainiak eraikitako lehen mailako geltoki zaharra, Biarezek 1881ean berritu aurretik, Donostiako geltokiaren antzekoa zena, txikiegi geratu zen. Hori zela eta, Merkatal Ganbarak eta Udaletxeak egindako ezin konta ahala presioren ondorioz, Norteko Konpainiak errenazentista kutsuko etxe berri neoregionalista bat eraikitzea erabaki zuen. Lanak 1928an hasi baziren ere, 1932ra arte atzeratu zen inaugurazioa, egoitza lekuz aldatu gabe, zerbitzuak eskaintzen jarraitu behar zuen geltoki-instalazioak eraikitzeak zekartzan zailtasunak handiak baitziren.

### Beste geltoki batzuk

Trenbideko gainerako geltokiei dagokienez, hirugarren mailako geltokiak eraiki zituen Letourneurrek: Manzanos, Argantzun, Langraiz Oka, Dulantzi, Agurain eta Araian, eta gaur egun oraindik zutik dirauten Andoain eta Errenteriako geltokien oso antzekoak dira. Hondatu itxura zutela eta, 70ko hamarkadaren hasieran eraikuntza moderno eta funtzional batzuk eraiki zituzten haien orde. Plan berri honen arabera, ordezkatzeko horrekin batera geltokien kokapena ere aldatu egin zen.

Geraleku txiki bat izanik ere, aipagarria da Estibalitzko geraleku bitxia, 40ko hamarkadan eraikia. Azulejuz egindako Ama Birjinaren irudia du fatxadaren.





Oriaren gaineko trenbideak eta errepideak dira garraibide-azpiegiturek izan zuten bilakaeraren lekuko. Itsasondo. Ferrocarriles y carreteras sobre el río Oria dan testimonio de la evolución de la infraestructura de comunicaciones. Itsasondo.

## PUENTES Y VIADUCTOS EN VÍA ANCHA

La peculiar orografía guipuzcoana ha exigido la realización de numerosos puentes en sus infraestructuras ferroviarias, a fin de salvar ríos y valles. Los primeros viaductos, en el ferrocarril del Norte, fueron proyectados por dos ingenieros,

- Letourneur los de fábrica
- Lavaley, de la casa Batignolles, los metálicos.

El primero realizó obras como los viaductos de Andoain, Herrera y la frontera,

El segundo realizó los de Ormaiztegi, Salera (en Otzaurte) y los numerosos tramos metálicos que superan el Oria.

Algunos puentes originales, como el puente de hierro del Urumea, en 1933 vieron sustituida su estructura por nuevas construcciones. Un caso similar es el de puente de Capuchinos en Rentería que primeramente fue sustituido en 1905 por un puente realizado por la Maquinista de Barcelona, y nuevamente en 1987, ha sido sustituido por un tramo metálico.

## ZUBIAK ETA BIADUKTUAK IBILBIDE ZABALETAN

Gipuzkoako orografia bereziaren eskakizunez zubi ugari egin behar izan dira trenbide-azpiegiturretan, ibaiak eta haranak gaindituko baziren. Norteko trenbidearen lehen biaduktuak bi ingeniariaren proiektuak izan ziren:

- Letourneurrenak, harrizkoak
- Batignolles etxeko Lavaley-enak, metalezkoak.

Hala, Letourneurrek eraiki zituen Andoain, Herrera eta mugako biaduktuak;

Lavaley-ek, berriz, Ormaiztegiakoa, Salerakoa (Otzaurte) eta Oriaren gainetik zenbait zatitan pasatzen diren metalezko biaduktu ugari.

Jatorrizko zenbait zubi, Urumeako burdinazko zubia esaterako, 1933an ordezkatu egin ziren, egiturari eraikuntza berri bat emanik. Antzeko zerbait gertatu zen Errenteriako Kaputxinoetako zubiaren kasuan: lehendabizi, Bartzelonako Maquinista-k eginiko zubi batek ordezkatu zuen 1905ean, eta ondoren, 1987an, berriz, metalezko zati berri batek.



FABRIKA-OBRAZ EGINDAKO ZUBIAK. IBILBIDE ZABALA

PUENTES DE FÁBRICA. VÍA ANCHA



NAZIOARTEKO IRUN-HENDAIA ZUBIA MUGAKO BIDASOA IBAIAREN GAINEAN

EL PUENTE INTERNACIONAL IRUN-HENDAIA SOBRE EL FRONTERIZO RÍO BIDASOA







## BURDINAZKO BIADUKTUA. IBILBIDE ZABALA

### VIADUCTOS DE HIERRO. VÍA ANCHA

BIADUKTUA ORIA IBAIAREN GAINEAN / VIADUCTO SOBRE EL RÍO ORIA



Tren-biaduktua Oría ibaiaren gainean, Alegian. / Viaducto del ferrocarril en Alegia.



Tren-zubia Oria ibaiaren gainean, Villabonan.

Viaducto del ferrocarril en Villabona.



Tren-zubia Oria ibaiaren gainean, Villabonan. / Viaducto del ferrocarril en Villabona.

Tren-zubia Oria ibaiaren gainean, Alegian.

Viaducto del ferrocarril en Alegia.



Tren-zubia Oria ibaiaren gainean, Itsasondon.

Viaducto del ferrocarril en Itsasondo.



## BURDINAZKO BIADUKTUA, IBILBIDE ZABALA

### VIADUCTOS DE HIERRO. VÍA ANCHA



Biaduktua Ormaiztegin. / Viaducto de Ormaiztegi.




Otzaurteko tunelaren irteera.  
Salida del túnel de Otzaurte.



Otzaurteko tunela. / Túnel de Otzaurte.

Ormaiztegiko biaduktua.  
Gerra zibil ostean egin beharreko  
konponketaren oinarri  
indargarriaren xehetasuna.

Viaducto de Ormaiztegi  
Detalle del soporte que refuerza  
la reparación que fue necesaria  
tras la Guerra Civil.







Norteko Geltokia Donostian.  
Estación del Norte en Donostia-San Sebastián.



Norteko Geltokia Donostian.  
Estación del Norte en Donostia-San Sebastián.



Norteko Geltokiari itsatsitako arkudura.  
Donostia.  
Arcada adosada a la Estación del Norte.  
Donostia-San Sebastián.





TRENBIDE ESTUA / LA VÍA ESTRECHA







Trenbidea Maltzagan. / Ferrocarril en Maltzaga.

## FERROCARRILES DE VÍA ESTRECHA

Si el primer ferrocarril guipuzcoano se estableció con el ancho de vía de 1,67 m, más conocido como ancho normal español, el resto de la red ferroviaria fue dotada de vía estrecha, por regla general métrica. Si esta elección dificultaba los tráficos combinados con el Ferrocarril del Norte, permitía en cambio una mayor economía en su establecimiento al poder ceñirse los trazados a la enrevesada orografía guipuzcoana, evitando la construcción de los importantes túneles, trincheras y viaductos que el del Norte exigía.

Así, la red ferroviaria de Gipuzkoa quedó conformada por dos sistemas diferenciados e inconexos: la línea del Norte por una parte, y los diversos ferrocarriles de vía estrecha por otra.

## TRENBIDE ESTUKO TRENAK

Gipuzkoako lehen trenbideak 1,67 m-ko zabalera bazuen ere, hau da, "Espainiako zabalera arrunt" gisa ezagunagoa zen neurriko ibilbidea, gainerako trenbide-sareak trenbide estuko zabalera zuen, arau metriko orokorraren arabera. Ebazpen horrek Norteko Trenbidearekin trafikoa bateratzea zailtzen bazuen ere, trenbide estua hobeto egokitzen zitzaion Gipuzkoako orografi bihurriari eta trenbidea kokatzea merkeago suertatzen zen eta, gainera, Norteko Konpainiak exijitutako tunel, lubaki eta zubi garrantzitsuak egitea saihesten zen.

Beraz, Gipuzkoako trenbide-sarea loturarik gabeko bi sistema desberdinez osaturik gelditu zen: batetik, Norteko trenbidea eta, bestetik, ibilbide estuko hainbat trenbide.

Trenbidea Deban. / Ferrocarril en Deba.





Tren Baskongadoa edo "kostaldeko trena" Deba ibaiaren gainean Irurainen. Deba.  
Tren de los Vascongados o "tren de la costa" sobre el río Deba en Irurain. Deba.

## LOS FERROCARRILES VASCONGADOS. DEL DEBA MEDIO AL URUMEA

Pese al fracaso del proyecto de un ferrocarril entre Madrid e Irun por Bilbao, los vizcainos no desistieron en su empeño de disponer de un camino de hierro que los enlazara con la capital del reino y con la frontera. Para cubrir el primer objetivo, en 1863 entraba en servicio la línea Bilbao-Muskaria que en Miranda de Ebro enlazaba con la del Norte pero tras el gran fracaso económico que supuso la empresa, el capital se mostraba reacio a invertir en ferrocarriles.

Por ello, no será hasta 1882, cuando se inaugure la primera sección de la línea a la frontera, el Ferrocarril Central de Bizkaia, entre Bilbao y Durango. Para reducir al máximo los gastos de primer establecimiento, sus promotores optaron por la más económica vía estrecha, y su gran éxito económico impulsó a diversos capitalistas vizcainos y guipuzcoanos a estudiar la prolongación de la línea.

En 1885 queda constituida la compañía del ferrocarril de Durango a Zumarraga, con el fin de enlazar en esta última localidad con el Ferrocarril del Norte, lo que permitiría, con un solo trasbordo, el enlace entre Bilbao y la Frontera.

Asimismo se proponían construir un ramal entre Maltzaga y Elgoibar, para dar salida a la producción de la fábrica de San Pedro de Karkizano.

Iniciadas las obras en Durango, la vía estrecha llega a Gipuzkoa el 22 de septiembre de 1887, al entrar en servicio el tramo Durango-Elgoibar. Poco después, el 26 de agosto de 1889 se abrirá la vía, entre Bergara y Zumarraga.

La incomodidad que suponía la necesidad de efectuar transbordo en Zumarraga, especialmente gravoso en el

## KOSTALDEKO TRENA. DEBAERDETIK URUMEARA

Bilbotik igarotzekoa zen Madril eta Irun arteko trenbide proiektua bertan behera geratuagatik, bizkaitarrek ez zioten amore eman estatuko hiriburua mugarekin elkartzen zuen trenbidearekin lotura izango zuen trenbidearen aukerari. Lehen helburua errealtate bihurtzeko, 1863an Miranda de Ebron jarri zen abian Norteko trenbidearekin bat egiten zuen Bilbo eta Tuterara arteko trenbidea; baina enpresa horrek eragindako diru-galeraren ondorioz, kapitala trenbide alorrean inbertitzearen aurka azaldu zen.

Horregatik, 1882ra arte ez zen ireki mugarainoko trenbidea izango zenaren lehen zatia, Bilbo eta Durango arteko trenbidea, Bizkaiko Trenbide Nagusia izenekoa. Lehen trenbidearen kokapeneko gastuak ahal bezainbat murriztearren, sustatzaileek merkeagoa zen trenbide estua hautatu zuten, eta hasierako arrakasta ekonomikoak Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat kapitalista trenbidearen luzapena aztertzeraz bultzatu zituen.

1885ean, Durangotik Zumarragarako Trenbide Konpainia eratu zen, herri honetan Norteko trenbidearekin bat egiteko. Honek, tren-aldaketa bakar batez, Bilbo eta Muga elkartzeko aukera ematen zuen.

Gisa berean, Maltzaga eta Elgoibar artean adar bat eraikitzeko asmoa ere azaldu zen, San Pedro Karkizano lantegiko ekoizpenei irteera emateko.

Lanak Durangon hasi ziren eta trenbide estua 1887ko irailaren 22an iritsi zen Gipuzkoara, Durango eta Elgoibar arteko zerbitzua ezarri zenean. Beranduago, 1889ko abuztuaren 26an ireki zen trenbidea Bergaratik Zumarragaraino.

Zumarragan egin beharreko tren-aldaketak, batez ere, merkantzien garraio nekosoak eragiten zuen deserosotasuna zela-eta, Irungo mugaraino iritsiko zen trenbide



transporte de mercancías, hizo que pronto se estudiara la prolongación de la vía estrecha hasta la frontera, y en 1891, D. Manuel Martí obtuvo la concesión para la construcción y explotación de un ferrocarril que desde Elgoibar, y paralelo a la costa, llegara a Irun, tras su paso por Donostia. Iniciadas las obras, el 3 de agosto de 1893, los trenes comienzan a circular entre Donostia y Zarautz.

Sin embargo, las dificultades que ofrecían los pasos de Itziar y Meaga retrasaron la definitiva conclusión en la línea hasta el 1 de enero de 1901, fecha en la que con toda solemnidad se inauguraron los primeros servicios directos entre Donostia y Bilbao. El elevado costo de la construcción de este último trayecto condujo a la empresa explotadora a una situación económica delicada que le hizo desistir del proyecto de prolongación a la frontera.

### Compañías, electrificación y otras mejoras

Pocos años después, las tres compañías explotadoras de la línea Bilbao-Donostia, que aunque muy vinculadas entre sí, se habían mantenido independientes, iniciaron un proceso de fusión que se materializaría en 1906 con la constitución de la Compañía de los Ferrocarriles Vascongados. El éxito de la fusión fue inmediato y ante el notable aumento del tráfico se procedió, en 1929, a la completa electrificación de la línea.

Junto a las nuevas locomotoras eléctricas, la compañía introdujo coches de viajeros de construcción metálica, con lo que “los Vascongados” se convertía en la primera empresa ferroviaria del Estado en disponer de composiciones de viajeros enteramente formadas de coches metálicos, más sólidos y seguros que los de madera. Entre todos ellos destacaba el famoso tren “Pullman”, servicio de lujo, que en algo más de dos horas -los servicios ordinarios emplean más de tres- enlazaba las dos capitales. Su servicio de bar era atendido por personal de la prestigiosa “Wagon Lits”.

Pese a que los resultados de la explotación fueron altamente positivos hasta mediados de los años sesenta la inauguración de los primeros tramos de la autopista Bilbao-Behebia dio al traste con tan floreciente empresa, cuyos servicios pasaron en 1972 a ser explotados por la empresa estatal FEVE (Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha).

Poco después se suspendió el servicio en el ramal de Maltzaga a Zumarraga.

La línea general, tras largos años de agonía, comenzó a modernizarse en 1977. La renovación no se concluiría hasta los años ochenta, ya bajo la dirección de los Eusko Trenbideak (ET/FV), empresa pública que se hizo cargo en 1982 de las líneas antiguamente explotadas por FEVE en la Comunidad Autónoma, tras las transferencias efectuadas en 1979.

estuaren luzapena aztertzeari ekin zitzaion laster, eta 1891n Manuel Martí jaunak Elgoibartik hasi eta itsasertzetik jarraituz, Donostia zeharkatu ondoren, Irunera iritsiko zen trenbide bat eraikitzeo eta ustiatzeko emakida eskuratu zuen. Lanari ekin eta 1893ko abuztuaren 3an jarri zen abian trenen joan-etorria Donostia eta Zarautz artean.

Hala ere, Itziar eta Meagako pasabideek zailtasun handiak eman zituzten eta zati hori ez zen behin betirako bukatu 1901eko urtarrilaren 1a bitartean; hain zuzen ere, Donostia eta Bilbo arteko zuzeneko lehen zerbitzuak handikiro ospatuz estreinatu ziren egunera arte. Azken zati honetako eraikuntza-lanen kostu altuak enpresa ustiatzailea egoera ekonomiko zaillean utzi zuen eta mugarainoko luzapen proiektuari uko egitera eramán.

### Konpainiak, elektrifikatzea eta besteak

Urte batzuk beranduago, elkarren artean harreman estuak izan arren, independenteki jarduten zuten Bilbo-Donostia arteko trenbidearen hiru enpresa ustiatzaileek bat-egiteko prozesuari ekin zioten eta 1906an eratu zuten “Compañía de los Ferrocarriles Vascongados” elkarteá. Berehalakoa izan zen elkartze horren arrakasta eta, trafikoa nabarmenki handitu zela ikusirik, 1929an trenbide guztia elektrifikatu zuten.

Lokomotora elektriko berriekin batera, Konpainiak metalezko bidaiari-bagoiak sartu zituen eta, hala, Konpainia Baskongadoa bilakatu zen Estatuko lehen tren-enpresa, erabat metalezko bagoiez osatutako bidaiari-bagoiak – zurezkoak baino askoz ere seguruagoak – zituena. Guztien artean nabarmentzen zen Pullman izeneko tren sonatua; luxuzko zerbitzu bat zen, eta bi hiriburuak bi ordu pasatxotan lotzen zituen, distantzia bera egiteko tren arruntek hiru ordu edo gehiago behar izaten zituztenean. Tren horren edaritegi-zerbitzuan Wagon Lits ospetsuko langileek jarduten zuten lanean.

Ustiapenaren emaitzak 60ko hamarkadaren erdira arte oso onuragarriak izan ziren arren, Bilbo-Behebia arteko autobidearen lehen zatiak abian jartzeak galera handiak eragin zizkion gora zihoan enpresa honi eta, horren ondorioz, 1972an, zerbitzu guztiak Espainiako Trenbideen Enpresa Publikoak (FEVE) hartu zituen.

Beranduago, Maltzagatik Zumarragarako adarraren zerbitzuak geldiarazi ziren.

Trenbide nagusia, luzaroan hil zorian egon ondoren, 1977an modernizatzen hasi zen. Berrikuntza-lanak 80ko hamarkadan amaitu ziren, eta, 1979an eskuratutako transferentzien ondorioz, 1982an bere gain hartu zituen Eusko Trenbideak (ET/FV) enpresa publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan aspaldidanik FEVEk ustiatzen zituen trenbideak.

ZUBIAK ETA BIADUKTUAK. IBILBIDE ESTUA  
PUENTES Y VIADUCTOS. VÍA ESTRECHA



Urola ibaiaren gaineko biaduktua Zumaian. / Viaducto sobre el río Urola en Zumaia.



Tren Baskongadoen biaduktu  
Deba ibaiaren gainean, Maltzagan.

Viaducto de los Vascongados  
sobre el río Deba en Maltzaga.



Baskongadoen  
fabrika-obrazko biaduktua, Orion.

Viaducto de obra  
de los Vascongados en Orio.

